



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

HERRI LANETARAKO LANGILE BATEN DENBORALDIKO KONTRATAZIORAKO
DEIALDIA

Lizartzako Udalak, herriko lanetarako langile bat kontratatu behar du.

Betebeharreko baldintzak:

- a) Euskaraz jakitea ezinbestekoa izango da.
- b) Curriculum-a aurkeztu beharko da.
- c) Lizartzan errolatuta egotea baloratuko da.
- d) Igeltsaritza, Elektrizitatea eta Iturgintzan esperientzia eta jakintza baloratuko dira.
- e) Lanposturako beharrezko diren tresna edo makineriak erabiltzen jakitea baloratuko da.
- f) Bere zerga-betebeharrak egunean dituela ziurtatzen duen agiria edo kontratazio-organoak ziurtagiri hori zuzenean lortzeko baimena.
- g) Indarrean dagoen araudiaren arabera legezko ezgaitasun edo bateraezintasun kasuren baten ez egotea, beti ere legeak ematen duen aukeratzeko eskubidea alde batera utzita.
- h) Gidatzeko baimena B1 edukitzea

Lanpostuaren gutxieneko zereginak, hauek izango dira:

- a) Postuari dagozkion eginkizunak egoki betetzearren, eskatutako eta agindutako lanak egitea.
- b) Deskribatutako eginkizunez gain, helburuak lortzeko eskatzen eta legez inposatzen zaizkion beste batzuk ere burutu, dagozkion ahalmenen eta gaitasunen arabera.

Lanpostuaren baldintzak:

- a) Iraupena: 6 hilabete
- b) Lanegunak: Asteleheneretik ostiralera.
- c) Hilabeteko frogaldia.

Izena emateko epea: **EKAIN**aren 4ean, eguerdiko **13:00**etan amaituko da.

Eskaerak, behar bezala bete ondoren, curriculum-arekin batera, Lizartzako Udalaren Erregistro Nagusian erregistratuko dira.

OHARRA: Lanpostuaren berezko eginkizunekin zerikusia duten kasu praktiko batzuk burutu ahal izango dira, esperientzia baloratu ahal izateko.

Lizartzan, 2021eko maiatzaren 19an

ALKATEAK

Izpta: Iñaki Azpiroz Beldarrain

